
An abstract graphic composed of numerous overlapping triangles in various colors (yellow, orange, blue, purple, pink, teal) arranged in a circular, wave-like pattern. A white play button icon is centered within the graphic. The graphic is set against a light, textured background with a subtle grid pattern.

Euskal enpresa
berritzaileago eta
lehiakorragoaren alde

INNOBIDEAK ESTRATEGIA



INNOBIDEAK Eusko Jaurlaritzaren estrategia da, ondokoen bidez euskal enpresen lehiakortasuna hobetzeko sortua: teknologikoa ez den berrikuntzarako laguntza ematea, parte-hartzea sustatzea, kudeaketa aurreratua bultzatzea eta erakundeetan enpresa-bikaintasuna bilatzea.

1 | KUDEABIDE



Helburua

Euskal enpresen lehiakortasuna hobetu dadin bultzatzea, kudeaketa aurreratuaren metodologiak, tresnak eta printzipioak aplikatzen eta ezartzen lagunduta, hasierako kontraste baten bidez, eta proiektu pilotuak edota sendotze proiektuak garatuta.

Programa hori Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiekin batera eta EUSKALIT-en lankidetzaz garatzen da.



Laguntzak

Hasierako kontraste doakoa.

Proiektu pilotuak: Euskalkit-en lankidetzaz garatutako gaitze/egite moduluen % 60 eta % 70 bitarteko diru-laguntza.

Sendotze proiektuak: Kanpoko aholkularitza-kostuen % 60ko diru-laguntza, honako muga hauekin:

- 6.000 € gehienez, 5 eta 49 enplegu bitarteko enpresentzat
- 25.000 € gehienez, 50 enplegu edo gehiago duten enpresentzat



Diruz lagun daitezkeen jardunak

Kudeaketa aurreratu 6 elementuetako batekin edo batzuekin lotutako proiektuak, programaren erreferentzia:

- Estrategia.
- Bezeroak.
- Pertsonak.
- Gizartea.
- Berrikuntza.
- Emaitzak.

**ENPRESA-BIKAIN TASUNERA
NTZ KUDEAKETA
AURRERATUAREN BITARTEZ**

2 | LEHIABIDE



Helburua

Banakako edo lankidetzako proiektuak bultzatzea, produktua, zerbitzua edota merkatua dibertsifikatzeko eta enpresaren lehiakortasuna nabarmenki hobetzeko.



Laguntzak

Banako proiektuak: autatzeko moduko gastuen % 50, eta diru-laguntzaren muga 45.000 € da.

Lankidetzako proiektuak: Hautatzeko moduko gastuen % 50, eta diru-laguntzaren muga 35.000 € da enpresako eta 100.000 € proiektuko.



Diruz lagun daitezkeen jardunak

Honetarako proiektuak edo estrategiak:

- Erakundea egungo merkatuetara sartzea ahalbidetzeko.
- Merkatu berriak garatzeko.
- Produktu edo zerbitzu berriak garatzeko edo egun dauden produktuak nabarmenki hobetzeko.
- Barne-ekintzailatza bultzatzeko sistema definitu eta garatzeko, negozio unitate berriak edo enpresak sortze aldera.

**NEGOZIOEN
DIBERTSIFIKAZIOA
BULTZATUZ**

3 | PERTSONAK



Helburua

Lehiakortasun hobekuntza bultzatzea enpresan langileek parte hartzea bultzatzeko ekintzen bidez: kudeaketan, emaitzetan edo jabetzan.



Laguntzak

Proiektuaren hautatzeko moduko gastuen % 50, eta diru-laguntzaren muga 35.000 € da enpresako, partaidetza planaren diseinurako eta ezarpenaren laguntzarako.

Hautatzeko moduko gastuen % 50, eta diru-laguntzaren muga 30.000 € da enpresako, partaidetza planak ezartzeko laguntzarako.



Diruz lagun daitezkeen jardunak

Pertsonek enpresan parte hartzeko zuzendutako ekintzak, baldin eta ondoko hiru elementuak badituzte:

- Hasierako diagnostikoa.**
- Partaidetza planaren diseinua.**
- Partaidetza plana ezartzeko laguntza.**

Enpresan lan egiten duten langileen partaidetza plana ezartzeko laguntza baino ez duten azaltzen ekintzak.

**ENPRESETAKO
LANGILEEN
PARTE-HARTZEA
SUSTATUZ**

4 | PRESTAKUNTZA



Helburua

Ikastaroetara doazen pertsoneri ondoko gaiei buruzko oinarritzko ezagutza eta jakinduria ematea:

- KUDEAKETA AURRERATUA osatzen duten elementuak eta enpresen lehiakortasunean duten eragina, enpresan praktikoki ezartzeko adibideen eta jarraibideen bidez.
- NEGOZIO EREDUETAN balio eta berrikuntza proposamenak hobetzeko eta enpresen lehiakortasun hobekuntzari eusteko gakoak.



Laguntzak

Doako eta banakako prestakuntza saioak, ondoko gaiak jorratzeko:

- Estrategia
- Bezeroak
- Pertsonak
- Gizartea
- Berrikuntza
- Emaitzak
- Negozio ereduak

**KUDEAKETA AURRERATUARI ETA
LEHIATZEKO NEGOZIO-EREDUEI
BURUZKO PRESTAKUNTZA
ESKAINIZ**



NORK HAR DEZAKE PARTE INNOBIDEAK ESTRATEGIAREN PROGRAMETAN?

Jarduera hauetan diharduten enpresak:
industria-erazketa, eraldaketa, produkzioa,
produktu-prozesuei lotutako zerbitzu teknikoak
(aurrekoekin lotura dutenak), eta informazio- eta
komunikazio-gizartearen esparruarekin lotutakoak.

KUDEABIDE

Enpresak **5 enplegu gutxienez** dituenen
batez beste.

LEHIABIDE

Enpresak **10 enplegu gutxienez** dituenen
batez beste. Lankidetzaren proiektuen kasuan,
parte hartzen duten enpresa guztien artean
40 enplegu izan behar dituzte gutxienez.

PERTSONAK

Enpresak **20 enplegu gutxienez** dituenen
batez beste.

Informazio gehiago eta eskabideak
spri.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHIKORTASUN SAHIA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

